

KIT DIGITALA:

ENPRESA TXIKI ETA ERTAINENTZAKO
DIRU-LAGUNTZAK


GIDA-LAGUNTZA

ZER DA KIT DIGITALA?

Europar Batasunak finantzaturako Next Generation EU Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan, **Kit Digital programa** jarri da abian. Programa horren bidez, guztira **3.000 milioi euro bideratuko dira enpresa txiki, ertain eta autonomoi zerbitzu digitalak emateko laguntzetarako.**

Langile kopuruaren arabera, enpresek 2.000 eta 12.000 euro arteko bonu digitala eskuratu ahal izango dute. Finantzaketa publikoko bonu hori hainbat zerbitzu kontratatzeke erabili ahal izango da, besteak beste, webguneak sortzea, merkataritza elektronikoa, sare sozialen kudeaketa eta bulego birtualeko tresnei lotutako beste zerbitzu batzuk.

PROGRAMA KIT DIGITAL COFINANCIADO POR LOS FONDOS NEXT GENERATION (EU)
DEL MECANISMO DE RECUPERACIÓN Y RESILIENCIA



red.es

 KIT
DIGITAL



2.000€ ARTEKO BONU DIGITALA

1-2 langile dituzten eta autoenplegu-egoeran dauden enpresentzat eskuragarri



6.000€ ARTEKO BONU DIGITALA

3 eta 9 langile artean dituzten enpresentzat eskuragarri



12.000€ ARTEKO BONU DIGITALA

10 eta 49 langile artean dituzten enpresentzat eskuragarri

* Bonu digitalaren irismena hartutako soluzioaren arabera izango da. Zerbitzu-motaren arabera diru-laguntzen zenbatekoa jakiteko, iametzak eskaintzen duen zerbitzu bakoitzari buruzko informazioa ikustea gomendatzen da.

ZERTAN ERABILI DIRU-LAGUNTZAK?

Iametzak hainbat zerbitzu eskaintzen ditu bonu digitalak aprobetxatzeko:

01

WEBGUNEA ETA PRESENTZIA INTERNETEN



Wordpress tresna librearen bidez edo PHP hizkuntzarekin neurrira egindako garapenen bidez, webgune eta web aplikazioen garapenak egiten ditugu. Gainera, gure garapen lanen osagarri modura, ostatatze eta mantentze zerbitzua eskaintzen dugu. Hala, bezeroak zerbitzua zentralizatua dauka, edozein esku-hartze erraztuz.

Bonuan sartutako zerbitzuak

- Domeinua (urtebete)
- Ostatatzea eta mantentzea (urtebete, biltegitratzeko 50Gb-raino eta posta-kontu mugagabeak)
- Web orriaren diseinua (UX/UI)
- Interneteko oinarrizko posizionamendua
- Bilatzaileetan presentzia optimizatzea (oinarrizko SEO)
- Datuen analisi estatistikoa (Google Analytics edo Matomo)

Webguneko ezaugarriak

- Responsive diseinua
- Eduki irisgarria (hautemangarria, operagarria, ulergarria eta sendoa)
- Webgune autokudeagarria

Gutxi gorabeherako prezioa

- 2.000€ eta 3.000€ artean (deskribatutako ezaugarrien arabera)
- Lehen urteko ostatatzea eta mantentzea barne

Diru-laguntzaren taula

III segmentua 0 < 3 langile	II segmentua 3 < 9 langile	I segmentua 10 < 50 langile
2.000 €	2.000 €	2.000 €

Aplikatutako proiektuak

- Asociación Cluster del Papel
- Astiko, Astigarragako Merkatari, Ostalari eta Zerbitzuen Elkartea
- Donostia Kirola, Donostiako Udal Kirol Patronatua

02

MERKATARITZA ELEKTRONIKOA



WooCommerce tresna librea erabiliz, edozein dendatako katalogoa eta ordainketa-pasabidea garatuko ditugu, bezeroak bere produktuak Internet bidez sal ditzan.

Bonuan sartutako zerbitzuak

- Online dendaren diseinua (UX/UI)
- Produktuen katalogoa (100 erreferentzia)
- Ordainketa-metodoak konfiguratzea eta integratzea
- Bidalketa-metodoak (digitala eta fisikoa) konfiguratzea eta integratzea
- Interneteko oinarritzko posizionamendua
- Bilatzaileetan presentzia optimizatzea (oinarritzko SEO)
- Datuen analisi estatistikoa (Google Analytics edo Matomo)
- Hostinga eta mantentzea (urtebete, biltegitartzeko 50Gb-raino eta posta-kontu mugagabeak)

Webguneko ezaugarriak

- Responsive diseinua
- Eduki irisgarria (hautemangarria, operagarria, ulergarria eta sendoa)
- Webgune autokudeagarria

Gutxi gorabeherako prezioa

- 2.000€ eta 2.500€ artean (deskribatutako ezaugarrien arabera)

Diru-laguntzaren taula

III segmentua 0 < 3 langile	II segmentua 3 < 9 langile	I segmentua 10 < 50 langile
2.000 €	2.000 €	2.000 €

Aplikatutako proiektuak

- Argia Azoka
- Urruma denda

03

SARE SOZIALEN KUDEAKETA



Edozein erakunderen barne- eta kanpo-komunikazioaren egoeraren diagnostikoa egiten dugu, baita analisi horren ondoriozko ekintza-planaren diseinua ere. Hainbat sare sozialen kudeaketa integratzen dugu (Facebook, Twitter, Mastodon, Instagram, Youtube, LinkedIn) marketin digitaleko estrategiak eta ikus-entzunezko edukia sortuz.

Bonuan sartutako zerbitzuak

- Social Media Plana
- Sare sozialen monitorizazioa
- Sarearen optimizazioa/Gizarte Auditoretza Ertaina
- Sare sozial baten kudeaketa
- Astero postak argitaratzea (hilean gutxienez 4-8 sarrera)

Gutxi gorabeherako prezioa

- 2.000€-tik aurrera (deskribatutako ezaugarrien arabera)

Diru-laguntzaren taula

III segmentua 0 < 3 langile	II segmentua 3 < 9 langile	I segmentua 10 < 50 langile
2.000 €	2.000 €	2.000 €

Aplikatutako proiektuak

- 2021eko Boluntariotzaren Asterako sare sozialen kudeaketa. Partaidetza soziala eta unibertsitatea
- Bai&by hizkuntza-akademiaren sare sozialen kudeaketa
- Oarsoaldea Eskualdeko Garapen Agentziako Euskara Sailaren sare sozialen kudeaketa

04

BULEGO BIRTUALEKO ZERBITZU ETA ERREMINTAK



Nextcloud lankidetza anitzeko plataforma da, bezero-zerbitzari programa bat baino gehiago biltzen dituena, partekatutako artxiboen ostatatzea ahalbidetuz. Google-en alternatiba etikoa dela esan genezake, izan ere, Google Drive, Docs, Calendar edo Meet-ekin bete daitezkeen funtzioak egin daitezke. Norberaren laino propioa, norberak kudeatua sortzeko aukera ematen du, multinazional baten eskuetan datuak eta informazioa utzi ordez

iametza softwarea instalatzeaz eta parametrizatzeaz arduratzen da, karpeten gaineko baimen-sistematik hasi eta hodeiko beste plataforma batzuetako dokumentuak migratzeraino (Dropbox, adibidez). Era berean, zerbitzua martxan jartzeko prozesua prestatzen dugu, beharrezko prestakuntza eta dokumentazioa barne.

iametzak ere ostatu-zerbitzua eskaintzen du, bere garapen-lanen osagarri. Horrela, bezeroak zerbitzu zentralizatua du, edozein esku-hartze erraztuz. Pakete guzti hau kontratatzeak zerbitzu hobea eskaintzeko aukera ematen digu, honen eguneratzea eta mantentzea errazten baita, behar diren teknologia guztiak behar bezala kontrolatuta.

Bonuan sartutako zerbitzuak

- Konponbidea lan-taldera pertsonalizatzea
- Partekatutako fitxategiak biltegiatzea (gutxienez 1 TB)
- Egutegia eta agenda

Nextclouden ezaugarriak



Datuen gaineko kontrola



Pribatutasunaren zaintza



Beharren egokitzapena



Edonondik sartzeko aukera



Konexiorik gabeko sarbidea



Ordenagailu eta mugikorren aplikazioa



Babestutako artxiboen bidalketa



Ordenagailu eta mugikorren jakinarazpenak



Baimen desberdinen kudeaketa



Dokumentuen edizio eta partekatzea



Bideo deiak



Dokumentuen sinkronizazioa



Kontaktuen segurtasun kopiak



Posta elektronikoa



Euskarazko tresna

Gutxi gorabeherako prezioa

- 2.000€-tik aurrera (deskribatutako ezaugarrien arabera)

Diru-laguntzaren taula

III segmentua 0 < 3 langile	II segmentua 3 < 9 langile	I segmentua 10 < 50 langile
250€/erabiltzaile (gehieneko 2 erabiltzaile)	250€/erabiltzaile (gehieneko 9 erabiltzaile)	250€/erabiltzaile (gehieneko 48 erabiltzaile)

Aplikatutako proiektuak

- Errenteriako Udala
- Ameztoi Anaiak
- Argia

GALDERARIK BADUZU?

Etxeko martxa eta ingurukoen ordutegien menpe ibili ohi gara aurrera eta atzera beti. Bezeroen eskakizunei so, gutako askoren kasuan mugikorrarekin alde batetik bestera, goiz erdiko kafeari uko egin gabe, baina bulegoko ordutegiak errespetatuz eta bezeroei erantzunez.

Jar zaitetz gurekin harremanetan kaixo@iametza.eus helbidera posta elektroniko bat bidaliz, edo 943 376 716 telefonora deituz. Atsegin handiz erantzungo dizkizugu zure galderak.

